

DIRU-SARRERAK

Kostuak, kontuan hartzeko alde garrantzitsua da enpresak galerak ez izateko. Hasteko, hiriaren planoak egin beharko genuke eta horretarako, 1.400€-ko inbertsioa egin beharko genuke gutxi gora behera. Horretaz aparte, behar dugun planoak, hasieratik huts egon behar da nahi dugun moduan modifikatzeko eta GPS bat eratzeko. Aplikazio simple batek ez du erabiltzen GPS-rik ezta sare sozialeko integrazioa, orduan, askoz merkeagoa izango da, berriz, aplikazio konplexu batek askoz garestiagoa izango da zerbitzu gehiago edukiko dutelako (3.000€ eta 7.000€ artean).

Plataforma batean publikatzeko, adibidez, Google Play-ean 25\$ ordaindu behar da behin, bestalde, App Store publikatzeko 99\$ urtero ordaindu behar da. Informazio honetan oinarritzen, 8.400€ gutxi gorabehera kostatuko litzaiguke. Aplikazio bat egiterako orduan, hainbat faktoreak kontuan izan behar dugu bere kostua zein den esateko. Alde handia dago aplikazio simple batean eta konplexuago den beste baten artean. Halaber, sentsoreak, beste kostu garrantzitsu bat da. Gure aplikazioaren ezinbesteko elementu bat denez, ezin izango dugu hau ekiditu eta gainera kalitate oneko sentsoreak izan beharko ditugu. Kontuan izan behar dugu etxebizitza baten instalazio elektrikoa, 1500€-koa dela gutxienez. Hortaz, ondorioztatu behar dugu gure proiektua kaleko instalazioa beharko duela eta horrek, bikoiztu al ditu gure kostuak, instalazioei begira.



Kostuei hitz egiten ari garenez, kontuan hartu behar dugu Euskal Gobernuak ematen dituen laguntzak jende ekintzaileei. Ikerketa bat egin ondoren, topatu egin du "Lanbide" ematen duela 1000€-ko laguntza pertsona sustatzaile bakoitzari. Gainera, 18 urte daukagunez, gehienak, %15 hazkundea izango du + beste %15 emakumeak izategatik. Hau dena posible izango da, bete behar ditugun betekizunak betetzen ditugulako, hala nola Euskal Herrian erroldatuta egotea.



Ekintzaileei mesede egitea ezinbestekoa da Udaleentzat, hortaz laguntza eskaintzeko programak daude. Ikerketa bat egin ondorioz, ikusi dugu nola 2018ko kanpainan eskaini zituela 2.200.000€. Hala nola, Barakaldoko Udalaren "Organismo Autónomo Ingurualde" bitartez.